

# Boris Jeltsin azken unera arte saiatu da serbiarren aurkako erasoak gerarazten

Ukrainak ere protesta egin nahi izan du, herrialde ez nuklear izendapena ezabatuz

Erredakzioa / Donostia

Errusiako agintariak azken-azkenera arte saiatu ziren atzo Serbiaren aurkako erasoak gerarazten, baina, espero zenez, ez zuten mehatxu militarrik erabili bonbardaketak ekiditeko. Txinak ere gogor arbuatu du NATOren erabakia, eta, lehen aldiz, Ukrainak protesta egin nahi izan zuen.

BORIS JELTSIN telebistaz mintzatu zitzaizen errusiarrei bere Gobernuaren iritzia jakinarazteko. Adierazpen horretan, Jeltsinek «mundu osoa eta politikariak» deitu zituen Bill Clintoni presio egiteko. «Gera dezagun Clinton!», aldarrikatu zuen. Presio gisa neurri militarrik ez zuen hartu Errusiako presidentek.

Jeltsin ia ordubetez mintzatu zen telefonoz Clintonekin arratsaldean, baina bilerak ez zuen balio izan bietako inork iritzia aldatzeko.

Asteartean, Irlandan zegoela, Jevgeni Primakov Errusiako lehen ministroak Kosovoko egoera Euskal Herrikoarekin konparatu zuen. «Agian orain norbaitek Turkia bonbardatu nahiko du kurduen arazoa konponduta ez dagoelako, edo Espainia, euskal arazoa hor duelako. Eta ez dut aipatu nahi orain nagoen herrialdea», esan zuen.



Errusiarrek protestan Estatu Batuek Moskun duten enbaxadan.

Funtsean, Errusiak ezin du protesta besterik egin NATOren erabakiaren aurrean. Errusiak nahiko arazo badu bere burua gobernatzearekin, serbiar aliatu historikoa

defenditzearren arazo gehiagotan sartzeko. NATOren erabakiaren berri jakin zuenean, Primakov bera Estatu Batuetara zihoan, Estatu Batuen bidez Nazioarteko Diru Fon-

doari mailegu gehiago eskatzeko. Errusiak diru hori behar du orain zor dituen pentsioak eta soldatak pagatzeko, herrialdea martxan jartzeko eta dagoeneko pilatuta duen zorraren interesak pagatzeko. Kosovo dela-eta Primakovek bere bidaia bertan behera uztea txaloz jaso zuten diputatuak, baita liberalen egunkariaren kritika gogorrek ere.

## Ukrainaren keinua

Ukrainak ere elkartasuna adierazi nahi zion hegoaldeko senide eslaviarari. Azken urteotan Mendebal Europarekin harreman onak eduki nahi izan ditu Kiev-eko Gobernuak, baina orain kontrako keinu bat egin du. Hain zuzen ere, Ukrainako Legebiltzarrak bertan behera utzi zuen herrialdea «nuklearizatu gabetzat» jotzeko erabakia. Deklarazio hori Sobiet Batasuna hautsi zenean egin zuen Ukrainak, eta horrekin erakustera eman nahi zuen lurralde neutrala zela eta ez zuela arma nuklearrik nahi. Horren ondorioz, Sobiet Batasunaren garaian Ukrainan pilatutako 176 arma atomikoak Errusiara eraman zituzten. Azkena 1996ko maiatzean atera zen. Mendebaldera gerturatu nahian, Ukrainak NATOrekin kooperatzeko ituna izenpetu zuen 1997an.

## Jendarmearen logika

Iker Aranburu

dentzia lortzeko atea zabaltzeko erabakia, baina ezer ez egitea are arriskutsuagoa». Hala justifikatu ditu Bill Clintonek Serbiaren aurkako erasoak. Antzeko hitzak esan zituzten NATOko beste gobernuburuek ere. Argudioa erabat logikoa da beraien aldetik. Izan ere, iazko otsailean Kosovoko gatazka larritu zenetik, NATOk behin eta berriro iragarri du ez zuela luzarozan jasango albaniarren aurkako errepresio bortitza. Mehatxu horiek behartuta bildu ziren serbiarrak eta albaniarrek otsailean Rambouilleteko bake negoziatuetan. Albaniarrek halabeharrez onartu zuten autonomia, ondoren indepen-

**Beldurra** • Azken asteetan hainbat ultimatum egin ditu NATOk eta eginahal diplomatikoak ugaritu ditu. Argi utzi du erasoan ondorioen beldur zela eta zer gertatuko den oso ongi ez dakiela. Ikusteke dago aire erasoek Milosevicen jarrera

aldaraziko duten, eta albaniarren aurkako errepresioa handitzeko arriskua ez da txikia. Gainera, bonbardaketa horiek hankaz gora jar dezakete Balkanetako oreka ahula. Baina, behin mehatxua eginda, ezin atzera egin barregarri geratu gabe, batik bat datorren hilean NATOk 50. urteurrena ospatu behar duenean. «Arrisku komunista» igaro ondoren, zeregin bat behar du NATOk —eta Estatu Batuek, benetako boterea haiek baitute Aliantzana—:

munduko jendarme izatea da zeregin hori.

**Nazio Batuek** • Erasoaren aurkakoez argudiatzen dute Nazio Batuek baimendu behar dutela nazioarteak herrialde baten aurka egitea, baina hori ezinezkoa zen Kosovoren kasuan, errusiarrek eta txinatarrek beto eskubidea erabiltzen baitute, oraindik potentzia direla erakusteko. Gainera, NATOk ez dio lekuri eman.

Hori bai, jendarmeari, lepora dakiok interesatzen zaion lekuan inposatzen duela «arrazoi humanitarioen» legea eta beste gatazka mingarri batzuk —Kurdistan, Sahara, Palestina...— ahaztuxeago dituela.

## Hamar urte gatazkatsu

Serbiarren eta albaniarren arteko gatazkak turkiar inperioan ditu sustraiak, baina 1989an berpiztu zen.

**1989** • Slobodan Milosevic Serbiako presidentek ezabatu egin zituen Errepublikaren barnean Vojvodinak eta Kosovok zuten autonomia. Tito mariskalak eman zien autonomia 1974an, eta horri esker nahiko bakean bizi izan ziren 15 urtez. Erabaki horrekin, bere boterea eta serbiarraren sendotu nahi zuen Milosevic, baina Jugoslaviaren zatiketa eta Eslovenia, Kroazia eta Bosniako gerrak ekarri zituen.

**1990** • Albaniarren matxinada indarrez erreprimitu zuen Serbiako Poliziak. Dozenaka hil. Uztailan, albaniarrek kontrolatutako legebiltzarrak independentzia aldarrikatu zuen.

**1992** • Ibrahim Rugova idazlea —komunista izandakoa— hautatu zuten albaniarrek presidente. Serbiak ez zuen onartu. Rugovak indarkeriarik gabeko erresistentzia bultzatu zuen: boikota serbiarren erakundeei eta zergak ordaintzeari.

**1993** • UCKren lehen ekintza: bi polizia serbiar hil zituen Drenican. Taldea Suitzan erbesteratutakoek sortu zuten, Rugovak berak zerbitzu sekretuen asmakizuna zela esan arren.

**1997** • Albaniarren manifestazioak ugaritu ziren.

**1998** • Polizia eta UCK gerra irekian hasi ziren Drenican. Maiatzean serbiarrek erasoari ekin zioten UCKren esku geratutako mendebaldeko eta iparreko lurak bereganatzeko. Irailean, dozenaka milaka errefuxiatu irudiekin batera jakin zen serbiarrek hainbat sarraski egin zituztela. Urrian, NATOren mehatxupean, su-etena indarrean jarri zen.

**1999** • Eguberrietan hasitako borroka odoltsuak gertatzeko, Kontaktu Taldeak prestatutako autonomia plana negoziatzen hasi ziren Rambouilleten eta gero Parisen. Albaniarrek martxoaren 18an izenpetu zuten akordioa, baina, presioak presio, serbiarrek ez dute egin.